



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 27a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde z aurreko erretiroa eskatzen duten unibertsitateetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituena. Hezkuntza Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, orain arte Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bidez finantzatu diren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzkoa. Hezkuntza Batzordeak onetsitako irizpena (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Kartzelan dauden pertsonen bizi baldintzak eta haien gizarteratzea aztertzeko ponentziaren txostena. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean aldez aurreko erretiroa eskatzen duten unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Hezkuntza Batzordeak ondoko Foru Lege proiektuaren irizpena onetsi zuen: "Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean aldez aurreko erretiroa eskatzen duten unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektua 2006ko abenduaren 15eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatu ahalko dira:

– 1 eta 2. zenbakiko zuzenketa, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa 2007ko otsailaren 13ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2007ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean aldez aurreko erretiroa eskatzen duten unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza sistemaren antolamenduari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrak alde aurretik borondatezko erretiroa hartzeko araubide bat ezarri zuen Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen eraginpean dauden unibertsitatetik kanpoko langile irakasleentzat, betiere adinari eta lan urteei buruzko baldintza batzuk betez gero.

Arau horretan, gainera, aldez aurretik borondatezko erretiroa hartzean hogeita zortzi urteko zerbitzualdia frogaturik duten funtzionario irakasleei ohiz kanpoko eskersari bat ematea aurreikusi zen.

Garai bateko Hezkuntza eta Kultura Departamentuko eta sindikatueta ordezkariek Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko 2001eko maiatzaren 31n sinatutako Ituna betearazteko neurrien artean, unibertsitateko ikasketak hobetzeko neurriak ezarri zituen uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea dago. Foru lege horren 2. artikuluan, aldez aurreko borondatezko erretiroaren ohiz kanpoko eskersari osagarri bat jasotzeko eskubidea onartzen zaie

lanpostua uzten duten Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario irakasleei, administrazio horren aurrekontuen kargura; izan ere, halaxe ezarrita zegoen Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrean.

Borondatezko erretiroaren saria aldeztu aurretik jaso ahal izateko, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario irakasleek, Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzeaz gainera, honako hau bete behar zuten: 1996ko irailaren 1ean jardunean egotea eta, geroztik, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxetako plantilletako irakasle lanpostuetan edo Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko hezkuntza ikuskatzaileen plantillako lanpostuetan lanean egotea etenik gabe. Unibertsitateko ikasketak hobetzeko neurriak ezarri zituen uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 2. artikuluan aurreikusita-koari jarraikiz, erreferentziazko data hori, hots, 1996ko irailaren 1ekoa, urtero eguneratzen da, eta Nafarroako Gobernuak 2006ko ekainaren 5eko Erabakiaren bidez, 2000ko irailaren 1era eraman da.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak erretiroa aldeztu aurretik hartzeko araubide berria ezarri zuen Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen eraginpean zeuden unibertsitatez kanpoko irakasleentzat. Araubide berria Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorraren bidez ezarritakoa bezalatsukoa bada ere, berrikuntza nabarmenak dakartza, eskatzen diren betebeharrak orokorrak aldatu baitira eta erretiroa hartzeko bide hau beste araubide batean sarturik dauden funtzionario irakasleek ere hartzeko aukera ematen baitu.

Gauzak horrela, erretiroa hartzeko bide hau aukeratu nahi dutenek, eskaera egiten duten egunean, hamabost urteko zerbitzualdi jarraitua frogatu beharko dute irakasle gisa. Hortaz, ez zaie eskatuko 1990eko urtarrilaren 1etik jardunean egotea, Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrean ezartzen zen bezala.

Gainera, irakasle lanetan hamabost urteko zerbitzualdi jarraitua frogatzei begira, zerbitzu berezietan emandako denbora ere kontatuko da, organikoki edo eginkizunei dagokienez hezkuntza administrazio baten menpe dagoen lanpostu batean aritzeko izan bada, eta baita seme-alabaren bat edo beste ahaideren bat zaintzeko eszedentzia berezian emandako denbora ere.

Azkenik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak bide ematen die Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean edo aurreikuspen sozialeko beste araubide batzuetan sartuta dauden langile irakasleei Estatuko Klase Pasiboen Araubidean jasota dagoen aldeztu aurreko borondatezko erretiroa hartzeko, arau horretan adinari eta zerbitzualdiari dagokienez ezarritako baldintzak betetzeko eta erretiroa hartzeko eskaera egiten dutenean araubide horretan sartzea aukeratuz gero.

Horiek horrela, aldeztu aurreko erretiroa hartu nahi duten irakasleek ohiz kanpoko ordainsaria jasotzeko lehen aipaturiko Lege Organikoak ezarritako baldintzak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioaren zerbitzuko irakasleei erretiro-sari osagarria jasotzeko eskatzen zaizkienekin harmonizatu nahian, beharrezkoa da foru lege hau onestea.

Aurreko guztia kontuan harturik, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzei buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen estatutu-araubidearen arloan Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumenak erabiliz, Nafarroako Parlamentuak foru lege hau onetsi du.

Artikulu bakarra. Borondatezko erretiro-saria, Hezkuntzari buruzko abuztuaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritako ohiz kanpoko eskersariaren osagarria dena.

1. Funtzionarioek beren funtzionario izaerari uko egiten badiote edo erretiroa borondatez hartzen badute 60 urtetik gora dutela eta zerbitzuan 28 urte eginda, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen iragankorraren babesean eta bertan adierazten diren baldintzak betetzeko, Foru Komunitateko administrazioak borondatezko erretiro-sari bat emanen die; sari hori xedapen iragankor hartan ezarritako ohiz kanpoko eskersariaren osagarri izanen da.

2. Erretiro-saria hartu ahal izateko, funtzionarioak erretiroa eskatzen duen urteko abuztuaren 31tik atzera Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko ikastetxetako plantilletako lanpostuetan sei urtez jarraian jardunean egon izana eskatuko zaio. Eskatutako zerbitzualdi horren barrenean zerbitzu berezietan egon bada edo, organikoki edo eginkizunei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioaren menpe dagoen lanpostu batean, are eszedentzia berezian ere, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio

publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 27. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako egoeraren bat dela kausa, berdin balioko du.

3. Aurreko idatz-zatietan ohiz kanpoko eskersariari buruz eta erretiro-sariari buruz xedatutakoa aplikatuko zaie funtzionario izaera ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean edo geroagoko arau baten babesean eskuratu zuten langileei, baita lan itunpeko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko erretiroaren saria zenbatekoa izanen den, foru lege honetako I. eranskinak agintzen du, funtzionarioaren adina, zerbitzu urteak eta kidegoa kontuan harturik.

5. Nafarroako Gobernuak borondatezko erretiro-sariaren zenbatekoa urtero igoko du Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansariak igotzen diren neurri berean.

Xedapen iragankor bakarra. Nola aplikatu foru lege hau 2006. urtean alde aurreko borondatezko erretiroa Hezkuntzari buruzko maiatzaren

3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatuz hartu zuten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko langile irakasleei.

Aldez aurreko borondatezko erretiroa 2006ko ekainaren 30a baino lehen, hots, ezarri zen ohiz kanpoko epearen barrenean, eskatu zuten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari berezia jasotzeko eskubidea izanen dute, foru lege honetan ezarri diren baldintzak betetzen badiuzte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe utzi dira unibertsitateko ikasketak hobetzeko neurriak onetsi zituen uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 2. artikulua eta foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

FORU LEGE PROIEKTUAREN I. ERANSKINA

2006.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Bigarren Hezkuntzako katedradun direnak; Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegokoak; Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegokoak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradun direnak; Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegokoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun direnak; eta Hezkuntza ikuskatzaileen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.696,38	8.792,47	8.792,47	8.792,47	8.864,55	8.864,55	8.864,55	8.948,62
Adina. 63 urte	8.960,64	8.960,64	8.960,64	9.044,70	9.044,70	9.044,70	9.128,78	9.440,54
Adina. 62 urte	9.128,78	9.128,78	9.224,89	9.224,89	9.561,21	10.197,83	10.954,55	11.843,40
Adina. 61 urte	9.308,97	9.381,04	9.801,43	10.486,09	11.290,87	12.239,80	13.332,83	14.533,99
Adina. 60 urte	9.765,41	10.450,06	11.242,83	12.179,72	13.272,79	14.558,02	15.987,39	15.987,39

2006.- Ondoko kidegoetako funtzionarioak: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak, Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegokoak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegokoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegokoak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	8.767,07	8.863,95	8.863,95	8.863,95	8.936,61	8.936,61	8.936,61	9.021,38
Adina. 63 urte	9.033,49	9.033,49	9.033,49	9.118,25	9.118,25	9.118,25	9.203,02	9.203,02
Adina. 62 urte	9.203,02	9.203,02	9.299,89	9.299,89	9.299,89	9.396,75	9.747,92	10.426,05
Adina. 61 urte	9.384,65	9.481,52	9.481,52	9.481,52	10.014,32	10.728,77	11.564,31	12.545,16
Adina. 60 urte	9.481,52	9.481,52	9.978,01	10.680,34	11.515,87	12.484,61	13.622,88	14.967,01

2006.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko edo Arte plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko maisu-maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	7.291,41	7.355,26	7.355,26	7.355,26	7.408,49	7.408,49	7.408,49	7.472,35
Adina. 63 urte	7.483,02	7.483,02	7.483,02	7.536,24	7.536,24	7.536,24	7.610,74	7.610,74
Adina. 62 urte	7.610,74	7.610,74	7.674,61	7.674,61	7.674,61	8.079,10	8.568,74	9.164,81
Adina. 61 urte	7.738,48	7.802,34	7.802,34	8.260,04	8.802,92	9.430,94	10.165,40	11.027,60
Adina. 60 urte	7.802,34	8.238,76	8.770,99	9.388,36	10.122,81	10.974,36	11.974,96	13.156,47

2006.- Maisu-Maistren kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehiago
Adina. 64 urte	7.266,02	7.322,16	7.322,16	7.322,16	7.389,56	7.389,56	7.389,56	7.456,93
Adina. 63 urte	7.894,92	7.894,92	7.894,92	7.951,06	7.951,06	7.951,06	8.029,67	8.029,67
Adina. 62 urte	8.029,67	8.029,67	8.097,07	8.097,07	8.097,07	8.175,68	8.478,89	8.995,49
Adina. 61 urte	8.164,44	8.231,82	8.231,82	8.231,82	8.669,81	9.231,33	9.882,68	10.657,57
Adina. 60 urte	8.231,82	8.231,82	8.647,35	9.208,86	9.848,99	10.612,66	11.499,85	12.544,28

Foru lege honetako 3. puntuan xedatutakoaren arabera, ohiz kanpoko ordainsaria eta erretiro saria emanen zaie bai funtzionario izaera ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean edo geroagoko arau baten babesean eskuratu zuten langileei, baita lan-kontratuko irakasle finkoei ere.

Foru Lege proiektua, orain arte Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bidez finantzatu diren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzkoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Hezkuntza Batzordeak Foru Lege proiektua, orain arte Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bidez finantzatu diren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatu ahalko dira:

– 1, 4, 7, 10, eta 13. zenbakiko zuzenketa, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa 2007ko otsailaren 15eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2007ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Orain arte Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bidez finantzatu diren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzkoak, xedapen iragankor bakarrean, 2001/2002 ikasturtean jardunean ziren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketa-araubidea ezarri zuen, haien egoera legeria indardunera egokitu bitarte.

Xedapen iragankor bakar horrek aipatzen dituen ikastolak hauexek dira: “Arangoiti Sociedad Cooperativa Limitada”, egoitza Irunberrin duena;

“Sociedad Cooperativa de Enseñanza Argia Ikastola”, egoitza Fontellas duena; “Erentzun Ikastola Sociedad Cooperativa Limitada”, egoitza Vianan duena; eta “Ibaialde Ikastola Sociedad Cooperativa”, egoitza Lodosan duena.

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emaniko 531/2006 Ebazpenaren bidez, lehen aipatutako ikastetxe pribatu horiek Nafarroako Gobernuaren itun araubidean sartu zirela deklaratu zen.

Deklarazio hori ikastetxe horiek ireki eta jarduteko baimena emateko prozesuan egin zen, eta ikastetxe horiek baimena jasotzeko behar diren baldintzak eta beharkizunak betetzeak baldintzatu zuten.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusten den bezala, Nafarroako Foru Komunitateak hezkuntza arloan duen eskumenak irakaskuntza arautzea eta administratzea hartzen ditu bere baitan, irakaskuntza osoa alegia, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztiak, ezertan ukatu gabe Konstituzioan arlo honi buruzko aginduetan ezarritakoa, horiek garatzen dituzten lege organikoak eta Estatuak dituen eskumenak, ikasketa eta lanbide tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzeari eta horiek bete eta bermatzeko goi mailako ikuskapena egiteari dagokienez.

Bestetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak hezkuntza administrazioen gain uzten du ikastetxe pribatu itundu batzuei baliabide gehiago emateko aukera, halakoak behar dituzten proiektuak direla-eta, edo eskolatu duten populazioak premia berezia duela kontuan hartuta.

Foru lege honetan hizpide diren ikastolen ezaugarriak bereziak direnez, 5.000 biztanletik beherako herriei ematen baitiete zerbitzua, pentsatzekoa da ikastetxe horiek baimendu eta itunduta egonik ere, horien bideragarritasun ekonomikoa ez litzatekeela bermaturik egonen epe laburrean, eta horregatik beharrezkotzat jotzen da finantzaketa neurri bereziak ezartzea, ikastetxeek ematen duten laguntza eta hezkuntza zerbitzua hobetzeko bide eman dezaten.

Xede horrekin onetsi da foru lege hau, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen xedapen iragankor bakarrean aipatzen diren eremu ez euskalduneko ikastolen finantzaketa berezia arautzeko alegia, horiek baimendu ondoren eta 2006ko irailaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitarteko eperako gehienez ere.

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da eremu ez euskalduneko ikastolentzako finantzaketa berezia arautzea, horiek baimendu ondoren eta 2006ko irailaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitarteko eperako gehienez ere. Ikastola horiek Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei

buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean oinarritutako finantzaketa izan dute orain arte.

2. Foru lege honetan aurreikusten den finantzaketa berezia bidezkoa izanen da aplikazio esparruko ikastola bakoitzak bere baimena jasotzen duen unetik aurrera, betiere baimen hori 2006ko irailaren 1ekoa edo ondorengoa bada.

2. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

1. Nafarroako Gobernuak, aurrekontuko kasuan kasuko kontusailen bidez, ikastetxe hauen gastu arruntan finantzaketan lagunduko du foru lege honek indarra duen bitartean, 2006ko irailaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra.

2. Nafarroako Gobernuak gehieneko diru kopuru bat ezarriko du urtero, taula honen arabera:

1. taula

Urtea	Urteko gehieneko finantzaketa
2006	1.718.253,93
2007	1.798.724,07
2008	1.758.489,00
2009	1.758.489,00
2010	1.758.489,00

3. Zenbateko horiek ikastetxeen mantentzerako erabiliko dira. Finantzaketa berezi gisa aurrekontuan ezarriko den zenbatekoa zein den zehazteko, ikastetxe hauei, foru lege honen indarraldian, hezkuntza itunen ondorioz gastuetarako dagokien dirua kendu beharko da aurretik. 2006. urterako finantzaketa berezi gisa ezarri beharreko kopurua honelaxe lortuko da: aurreko taulan ekitaldi horretarako adierazi den gehieneko gastuaren zenbatekoari Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean aurreikusitako finantzaketaz baliatuz 2006ko gastuetarako jaso dutena kenduko zaio, bai eta ekitaldi horretarako hezkuntza itunen ondorioz dagokiena ere.

4. Ituneko gastu zenbatekoa kalkulatzeko, ikastola bakoitzean itundutako unitateen batuketara egin, eta emaitza unitateari dagokion hezkuntza mailaren urteko modulu ekonomikoaz biderkatuko da.

5. Foru lege honetan aurreikusitako finantzaketa berezia aplikatzekoa izanen da uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean aipatzen diren eremu ez euskalduneko ikastolen itunen baturari dagokion zenbatekoa aurreko taulan aurreikusitako urteko gehieneko kopurura ailegatu arte, hortik aurrera foru lege hau ez baita aplikatzekoa izanen.

6. Finantzaketa bereziak bere baitan hartuko ditu unitate itunduei gehitutakoen gastu arruntak, irakasleen nominak, hezkuntza proiektuak eta funtzionamendu gastuak barne, betiere hezkuntza itunean sarturik ez dauden gastuak badira.

7. Foru lege honetan aurreikusitako finantzaketa bereziak dakarren gastua "Eremu ez-euskalduneko ikastolentzako dirulaguntza berezia" izeneko 432000-43200-4811-334100 kontusailari egotziko zaio 2006ko ekitaldian, eta hurrengo ekitaldietan Nafarroako aurrekontu orokorretan ezartzen den kontusailari; itunaren gastua "Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntzak" izeneko 410003 proiektuko kontusailei egotziko zaie 2006ko ekitaldian, eta hurrengo ekitaldietan berriz Nafarroako aurrekontu orokorretan xede horrekin ezartzen direnei.

3. artikulua. Ikastetxeen betebeharrak.

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan aurreikusitakoez gain, foru lege honetan aurreikusitako finantzaketa bereziaren araubideari atxikitzeko, ikastolen titularrak baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen xedapen iragankor bakarrean sarturik dauden eremu ez euskalduneko ikastolen titularrak izatea.

b) Ikastola horiek Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioak baimendutako ikastetxeak izatea.

c) Nafarroako Gobernuak ikastola hauentzat, Hezkuntza Departamentuarekin izenpetzen dituzten itunez edo xede hori bera duen beste edozein finantzabidez baliatuz, ezartzen duen finantzaketa urteko gehieneko zenbateko hauek ez gainditzea, taula honetan adierazi bezala:

2. taula

Urtea	Urteko gehieneko finantzaketa
2006	1.718.253,93
2007	1.798.724,07
2008	1.758.489,00
2009	1.758.489,00
2010	1.758.489,00

4. artikulua. Betebeharrak frogatzeko modua.

1. Ikastetxeetako titularrek aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte Hezkuntza Departamentuan, honek ezartzen duen epean. Betebeharrak urte osoan bete beharko dira.

2. Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak zehaztuko du, dirulaguntza eman beharreko urtearen aurreko urteko azken hiruhilekoan, ikastetxe bakoitzari hezkuntza itunaz baliatuz dagokion urteko diru kopurua. Halatan egiaztatuko du guztien itunetik ateratzen den gastu zenbatekoa bigarren artikuluko igarren idatz-zatian aurreikusitako gehieneko gastu zenbatekoa baino handiagoa ote den.

3. Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak ondorio horiekin 2008. urterako eta hurrengoetarako egiten dituen aurreikuspenak egun indarra duen hitzarmenak amaituta irakas-

kuntza pribatuaren arloan izenpetuko diren lan hitzarmenetan ezarritakoaren menpe geldituko dira.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak emanen du ikastola horietan jardunean dauden unitateen kopuruari buruzko informazioa.

5. artikulua. Aurreikusitako laguntzak.

1. Foru lege honetan araututako dirulaguntzak 2006ko irailetik 2010eko abendura bitarteko finantzaketa berezirako erabiliko dira, hezkuntza maila hauetan:

Haur hezkuntza

Lehen hezkuntza

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

2. Finantzaketaren xede den aldirako, ikasgela bakoitzeko emanen diren dirulaguntzen moduluak ondokoak izanen dira, honela banaturik:

3. taula

Hezkuntza maila:	Irakasleen ratioa		Langileen soldatak:	Modulua	Gastu aldakorrak	Modulua	Beste gastu batzuk	Moduluaren %	Modulua guztira
	Titularra	Agregatua							
Haur hezkuntzako 2. zikloa (urtarrila-abuztua)	1,12		37.527,64	72,13	5.980,66	11,49	8.522,49	16,38	52.030,78
Haur hezkuntza (iraila-abendua)	1,12		37.527,64	69,60	7.871,54	14,60	8.522,49	15,81	59.921,67
Lehen hezkuntza	1,28		42.888,72	71,54	8.030,78	13,40	9.033,94	15,07	59.953,44
DBHko lehen zikloa (urtarrila-abuztua)	1,52		52.177,17	73,23	8.366,55	11,74	10.707,57	15,03	71.251,29
DBHko bigarren zikloa (iraila-abendua)	1,52		52.177,17	70,63	10.990,13	14,88	10.707,57	14,49	73.874,87
DBHko bigarren zikloa	1,59		62.687,96	71,61	12.838,65	14,67	12.018,91	13,73	87.545,52
DBHko curriculum aniztasuneko unitatea	0,68		47.831,35	68,55	9.922,08	14,22	12.018,91	17,23	69.772,34
DBHko curriculum egokituko unitatea	0,88		55.716,62	70,27	11.549,36	14,57	12.018,91	15,16	79.284,89
Batxilergoa	1,52		59.389,76	70,14	13.267,76	15,67	12.018,91	14,19	84.676,43
Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko prestakuntza kurtsoa	1,40		55.196,93	69,65	12.029,78	15,18	12.018,91	15,17	79.245,62

a) Modulu horiek urtero gaurkotuko dira, ondorioak urtarrilaren 1etik aurrera izateko, ikastetxe baimendu eta itunduetako itunak eta dirulaguntzak gaurkotzen diren kopuru berberetan.

b) Ematen diren dirulaguntzak oso-osorik erabiliko dira diruz lagundutako ikastetxeen mantentze eta funtzionamendurako.

c) Aurrekontuetan urtero ezarriko den diru kopurua bi zatitan banatuko da, bata urtarriletik abuztura bitarteko eperako (8/12) eta bestea irailetik abendura bitarteko eperako (4/12).

d) Ikasketxe bakoitzean itundu gabe dauden unitate guztien ponderazioak eta hezkuntza maila bakoitzaren modulu ekonomikoaren zenbatekoak (3. taula) ezarriko dute dirulaguntzaren zenbatekoa. Banatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izanen, osotara, urtean aurrekontuan ezarritako gehienekoa baino handiagoa.

6. artikulua. Eskaerak egiteko epea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1. Diruz lagundu daitekeen gastua justifikatzeko, onuradunek eskabidea aurkeztu beharko dute, Hezkuntza Departamentuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari zuzendua eta foru lege honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Eskabide hori hilabete bakoitzeko lehenbiziko hamabost egun naturalen barruan aurkeztu beharko da, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Erregistroan edo Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten diren bideetako bat erabiliz.

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu beharko du dirulaguntza jasotzeko eskabidea. Honekin batera erakundearen estatutuak ere aurkeztuko dira.

Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Hezkuntza itunetik kanpokoko bikoizketetan aritzen diren ikastetxeko irakasleen plantilla, honako agiri hauek erantsirik:

a.1. Diruz lagundu beharreko aldiko lan kontratuaren eta nominen fotokopia konpultsatuak, langileen unitateko arduradunak edo parekoak izenpetuak. Bertan adieraziko dira izena, NANA, bikoizketan irakasteko gaikuntza ematen dion ikasketen titulua, maila, lan hitzarmen indardunaren arabera duen lanbide kategoria eta lan-antzinatasuna.

a.2. Irakasleei maila eta kurtso bakoitzean eskolak emateko bide ematen dieten titulu ofizialen egiaztagiriak, espezialitateen tituluak barne.

a.3. Epe horretan Gizarte Segurantzari kotizatutakoaren ziurtagiriak.

a.4. Epe horretan PFEZari dagozkion zenbatekoen atxikipenen ziurtagiriak.

a.5. Ikastetxeko arduradunak sinatutako asteko irakaslanaren orria, bertan adierazirik irakasleak ematen dituen orduak, kurtsoan banatuta.

b) Kasuan kasuko ikasturteko eskola-ordutegia, zuzendariak sinatua.

c) Dirulaguntza eskaera egin den itundu gabeko unitate bakoitzari buruzkoak:

c.1. Asteko eskola-ordutegia.

c.2. Irakasgai bakoitzeko irakasleak.

c.3. Unitateko ikasleen zerrenda.

Agiri guztiek ikastetxeko zuzendariak edo arduradunak sinatuak beharko dute.

d) Ikastetxeko dokumentazio pedagogikoa:

d.1. Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ikastetxeak.

d.1.1. Hezkuntza proiektua.

d.1.2. Curriculum proiektua.

d.1.3. Ikasgela bakoitzeko programazioa.

d.2. DBHko ikastetxeak.

d.2.1. Hezkuntza proiektua.

d.2.2. Curriculum proiektua.

d.2.3. Departamentuetako edo arloetako programazio didaktikoak, ikasturte bakoitzari dagozkionak.

d.3. Ikastetxeko pedagogiako karguen taula, ikasturte bakoitzari dagokiona, zuzendariak edo arduradunak sinatua.

e) Fakturak eta frogatarako baliokide diren gainerako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan balioa edo eraginkortasun administratiboa dutenak.

f) Eskola Kontseiluaren akta, II. eranskineko ereduaren arabera, bertan jasota aurkeztutako faktura guztien batura eta espresuki adierazirik faktura horiek ez daudela sartuta itunetako justifikazio gastuetan.

g) Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egiaztagiria, zergei dagokienez agiriak aurkezteko

egunean betebeharrak beteak dituela ziurtatzen duena.

Onuradunek zergei buruzko datuak Hezkuntza Departamentuak (Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia) Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatzea nahi izanez gero, espresuki eskatu beharko dute, dagokion eranskina betez. (III. ERANSKINA).

h) Ikastetxeko arduradunaren erantzukizuneko aitorpena, dokumentazioa aurkezten den egunean Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekin dituen betebeharrak egunean dituela dioena.

2. Ordainketa eskabidea baloratu ahal izateko behar bezala beterik ez badago, entitate eskatzaileari atzemandako akatsak zuzen ditzan eskatuko zaio, gehienez ere 10 egun naturalen barruan, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita. Eskatutako dokumentazioa zuzentzen ez bada, eskatzaileak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da, eta beste tramiterik gabe artxibatuko da.

3. Parte-hartzaileek jatorrizko agiriak edo notarioak nahiz administrazioak konpultsatutako kopiai aurkeztu beharko dituzte.

4. Ez da aurkeztu beharko Hezkuntza Departamentuak duen dokumentazioa, non eta ez diren aldatu bertako datuak.

5. Artikulu honen 1. idatz-zatian eskatutako dokumentazioa frogatzeko, hau da, nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazioa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipeak, eta dokumentazioa aurkezteko epea amaitu aurretik aurkezterik ez badago, ikastetxeko zuzendariak sinatutako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da; bertan jasoko da kasuan kasuko aldi-an, irakasleekin loturiko gastuen zerrenda zehatz bat (azken egunera arte aurreikusitakoena), gastu bakoitzari dagokion diru zenbatekoarekin. Ziurtagiriak jasotzen dituen alderdiak frogatzen dituen dokumentazioa ondoren aurkeztu beharko da, egi-aztatu ahal izateko.

7. artikulua. Laguntzen ordainketa.

1. 2006ko ekitaldian, foru lege honetan aipatzen diren dirulaguntzak Hezkuntza Departamentuko gastuen aurrekontuko "Eremu ez euskaldune-

ko ikastolentzako dirulaguntza berezia" izeneko 432000-43200-4811-334100 kontusailaren kargura ordainduko dira, eta hurrengo ekitaldietan, berriz, Nafarroako aurrekontu orokorretan horretarako ezartzen diren kontusailetatik. Ordainketak ikastolek egindako gastuak frogatu ondoren egingen dira.

2. Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzuak, aurkeztutako ziurtagiriak eta 5. artikuluan ezarritako dirulaguntza moduluak kontuan harturik, unitate bakoitzeko ordaindu beharreko dirulaguntza ezarriko du. Dirulaguntza egiaztatu eta erabiltzearen ondorioetarako foru lege honetan ezarritako irizpideei eta, ordezkotza izanaraz, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoei jarraituko zaie.

8. artikulua. Beste laguntzekiko bateragarritasuna.

Foru lege honetan aurreikusitako finantzaketa-araubidea eta beste laguntza batzuk bateragarriak dira, lege honen 3.1 c) artikuluan aurreikusitako salbuespenarekin; beste laguntza batzuekin bateratuz gero, halere, horien kopurua, banaka nahiz beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo dirulaguntzaren xede den jarduerak dituen baliabide bereki batzuekin batera, ez da izanen onuradunak bete beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

9. artikulua. Ordezko zuzenbidea.

Foru lege honetan aurreikusi ez den guztian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea izanen da aplikatzekoa, foru lege honekin bateraezina ez bada.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra, eta atzeraeragina izanen du, 2006ko irailaren 1etik aurrera. Indarraldia 2010eko abenduaren 31 artekoa izanen da.

I. ERANSKINA
ESKABIDEA

Eskatzailearen datuak

Eskatzailearen izena:

IFZ:.....

Helbidea:..... Telefonoa:

Posta kodea: Herria: Faxe:

Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Irakasleen plantilla, kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak, PFEZren ziurtagiriak, asteko eskola-ordutegia.
- Ikasleen zerrenda orokorra.
- Ikasturteko egutegia.
- Ikasgelak: ordutegiak, irakasleak, ikasleak.
- Ikastetxeko dokumentazio pedagogikoa.
- Eskola Kontseiluaren akta (II. Eranskina).
- Jardueraren justifikazio ekonomikoari buruzko dokumentazioa: Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzarena, beste batzuen.

.....(e)n, 20...(e)koaren(e)an

Sinadura:

(* Agiriek jatorrizkoak edo notario batek edo administrazioak konpultsaturiko fotokopiak izan beharko dute.

II. ERANSKINA
GASTUAK JUSTIFIKATZEKO ESKABIDEA

Ikastetxea:	Telefonoa:
Helbidea:	Posta elektronikoa:
Udalerrria:	HHko unitate kopurua:
Hezkuntza maila:	LHko unitate kopurua:
	DBHko unitate kopurua:

FUNTZIONAMENDU, ZAINKETA, AMORTIZAZIO GASTUAK JUSTIFIKATZEKO AKTA.

ZUZENDARIA:

IKASTETXEKO TITULARRAREN ORDEZKARIAK:

IRAKASLEEN ORDEZKARIAK:

GURASOEN ORDEZKARIAK:

IKASLEEN ORDEZKARIAK:

ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN ORDEZKARIAK:

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)koe(t)an (ordua), aipatutako pertsonak bilduta, ikastetxeko funtzionamendu, zainketa eta amortizazio gastuen kudeaketa egiaztatzeke zeregina bete behar duen eskola kontseiluko kide diren aldetik, hauxe egiaztatu dute:

20...../20..... ikasturtean, 20...(e)ko hilabetean, ikastetxeak izandako funtzionamendu, zainketa eta amortizazio gastuek euro egin dutela.

.....(e)n, 2006koaren ...(e)an.

Zuzendaria

Titularraren ordezkariak

Ikasleen ordezkariak

III. ERANSKINA
BAIMEN ESKABIDEA

.....
.. J/Ak (NAN zenbakia),
.....ren legezko ordezkaria
naizen aldetik,

BAIMENA EMATEN DUT

Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzuko zuzendariakk zerga betebeharrak beteak dituela adierazten duen agiria eska dezan Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, 5. artikuluko 5.1.9 puntuari jarraikiz.

Eta ondorioak izan ditzan(e)n sinatzen dut, 2006koaren(e)an.

LEGEZKO ORDEZKARIA

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Kartzelan dauden pertsonen bizi baldintzak eta haien gizarteratzea aztertzeke ponentziaren txostena.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 121.1 artikulua xedatutakoa betez, kartzelan dauden pertsonen bizi baldintzak eta haien gizarteratzea aztertzeke ponentziaren txostena argitara dadin agindu dut. Txosten hau Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsi zuen 2007ko otsailaren 7an.

Iruñean, 2007ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

TXOSTENA

Kartzelan dauden pertsonen bizi baldintzak eta haien gizarteratzea aztertzeke ponentziak, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordekoak, honako txosten hau aurkeztu die Batzordeari eta Legebiltzarreko Mahaiari:

AURREKARIAK

1. 2005eko maiatzaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak erabaki zuen, Nafarroako Ezker Batua eta Aralar parlamentu-taldeek proposatuta, ponentzia bat sortzea. Erabaki hori 2005eko maiatzaren 27ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta honela zioen:

“ 1. Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean ponentzia bat eratzten da, kartzelan dauden pertsonen bizi baldintzak aztertzeke, gizarteratzearen ikuspuntutik.

2. 2. Parlamentu-taldeek euren proposamenak eta agerraldi eskaerak aurkeztuko dituzte, eta horretan oinarriturik txosten bat eginen da amaieran. Lan hori amaitzeko epea lau hilabetekoa izanen da, eta luzatu ahalko da.”

2. Ponentzia 2005eko irailaren 21ean eratu zen, eta honako kide hauek izan ditu, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek horretarako hautatuak

izan ondoren: Josefina Bozal Bozal, Aurelia Lumbreras Iñigo, Ana Figueras Castellano, Miren Egaña Descarga, Milagros Oreja Arrayago, eta Helena Santesteban Guelbenzu andreak eta José Luis Etxegarai Andueza jauna, Legebiltzarreko legelari bat laguntzaile aritu dela, Silvia Doménech Alegre andrea.

3. Ponentziak aztertu du Legebiltzarreko zerbitzu juridikoei, Nafarroako Gobernuak, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako arartekoak ekarritako dokumentazioa, bai eta jarraian zerrendatzen diren erakunde, elkarte eta pertsonen emandako informazioa ere (haien agerraldia eskatu zen ponentziari aholku emateko).

- Dianova
- Hogar Zoe
- Gizakia Helburu
- Zuria eguneko zentroa eta Oasis elkarte
- Antox eta Larraingoa komunitate terapeutikoa
- José Amador Ruiz Sáenz jauna, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuko
- Sare
- Lourdes Chasco Piérola andrea, Espetxeetako Zerbitzu Juridikoko koordinatzailea
- Caritas
- Navarra Sin Fronteras elkarte
- Ibarre Miltzoa
- La Majarí ijito-elkarte
- María José Rodríguez de Armenta andrea, Nafarroako Delituen Biktimei Laguntzeko Atalaren burua
- Isabel Fernández Casas andrea, Gizarteratzen Laguntzeko Bulegoko burua

- Gaztelan Fundazioa
- Juan Romero jauna, Iruñeko espetxeko Tratamendu Batzordekoa
- Antonio García Enciso jauna, Iruñeko espetxeko zuzendaria
- Traperos de Emaús
- Patxi Arana jauna
- Nafarroako Prestakuntza eta Enplegurako Elkarte (ANAFE)
- Manolo Ledesma jauna, Salhaketa elkartekoa
- Carranza Fundazioa
- Gabriel Hualde jauna
- Etxerat elkarte
- Eduardo Mata Mondela jauna, espetxeratuen zaintzako epailea
- Albert Batlle i Bastardas jauna. Kataluniako Generalitateko Espetxe Zerbitzuetarako, Errehabilitaziorako eta Gazteen Justiziarako idazkaria
- Nafarroako arartekoa

4. Zenbait bilera egin ondoren, ponentziak honako txosten hau 2006ko azaroaren 21ekoan onetsi du. Txosten honi erantsi zaizkio honako parlamentu-talde hauek aurkezturiko boto partikularrak: Socialistas del Parlamento de Navarra, Nafarroako Ezker Batua, Aralar eta Eusko Alkartasuna.

5. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ponentziak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea ponentziak bere lana amaitu zuela, Mahaiak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeari dei egin ziezaion txosten honetan onetsiriko proposamenak eztabaidatzeko.

ONDORIOAK

LEHENA. Nafarroako Parlamentuak nazioko gobernuari eskatzen dio ezen, Nafarroako espetxe berria eta gizarteratze zentro berria bukatu eta okupatzen diren unean, Nafarroako Foru Komunitateari eskualda dakizkiola espetxeen arloan estatuko legedia betetzeko zeregin eta zerbitzuak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 58.1.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

BIGARRENA. Nafarroako Foru Komunitateari berehala eskualda dakizkiola espetxe osasunaren gaineko eskumenak, Osasun sistema nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren

28ko 16/2003 Legeko seigarren xedapen gehigarriak dioenari jarraituz, eskualdatze hori 2005. urtea baino lehenagorako aurreikusten baitzuen.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateari eskualda dakizkiola Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak Nafarroan betetzen dituen zeregin eta zerbitzuak.

HIRUGARRENA.

3.1. Eskualdaketa horiek gauzatu bitartean, nazioko gobernuak honako hauetaz arduratuko da osasun laguntzaren arloan, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez:

3.1.1. Espetxeratu prebentibo eta zigortuei eta espetxeratuta ez dauden zigortuei behar bezalako eta behar adinako laguntza psikiatriko eta psikologikoa emateaz, eta espetxean zinezko unitate psikiatriko bat sortzeko premia eta horrelako zerbaiten egokitasuna aztertzeaz, baldin eta buru-gaixotasuna duten zigortuak espetxeratzea baino aproposagoak diren alternatiba errealak ezin badira eskaini.

3.1.2. Nafarroan erroldatutako preso guztiek, gainerako herritarren maila berean, banan banako osasun txartela izan dezaten bermatzeaz, baita oraindik legez kanpoko egoeran dauden etorkinek ere.

3.1.3. Espetxeko osasun zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuen zerrenda Osasunbideko Oinarriko Osasun Laguntzaren Zuzendaritzak ezarritakoarekin homologatzeaz eta Osasunbidearen sare informatikoan eta historia kliniko elektronikotan sartzeko errazteko neurriak sustatzeaz, bai eta beharrezkoak diren neurriak eta bitartekoak sustatzeaz ere.

3.1.4. Hezkuntzako, prebentzioko eta osasun laguntzako programen jarraitasuna bermatzeaz eta horiek indartzeaz.

3.1.5. Drogarik gabeko modulu bat eratzeaz eta espetxean bertan benetako unitate terapeutiko bat sortzeko premia eta horrelako zerbaiten egokitasuna aztertzeaz.

3.1.6. Komunitate terapeutikoak gehitzeaz, mendekotasun-egoeran dauden pertsona zigortuak espetxearen ordezkotako neurriez baliatu ahal izan daitezen.

3.2. Bestetik, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak azterketa espezifikoa egingen du Espetxeetako Erakundeak eskatutako ospitaleko zaintza unitateari buruz.

LAUGARRENA.

4.1. Nazioko gobernuak, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuen eskualdaketa egin bitartean, espe-

txeratuen gizarte-laguntza integraleko sistemak ezartzea eta haiei behar bezalako tamaina ematea, egoki diren hitzarmenak sinatuz, kasua bada, Nafarroako Gobernuako gizarte zerbitzuekin.

4.2. Halaber, nazioko gobernuak, gizarte-esparruan:

4.2.1. programen eskaintza anitza planifikatuko du, aukeren benetako pertsonalizazioa bermatzen duena, baliabide eta programa orokor eta estandarizatuetatik ihes eginez.

4.2.2. espetxeratzearen ordezkioak diren tratamendurako modalitate eta programei laguntzeko ekintza sozial guztiak indartuko ditu.

4.2.3. errehabilitazio psikosozialeko programak abian jarriko ditu, trebetasun eta gaitasun pertsonal eta sozialetan gabezia larriak eta ezohiko portaera ereduak dituzten presoek zuzendutakoak.

4.2.4. atzerritarrei laguntzeko programa (datoren urteetan gero eta arazo gehiago sortuko baita arlo honen inguruan) eta gazteentzako eta emakumeentzako programa espezifikoak bultzatuko ditu espetxean.

4.3. Nafarroako Gobernuari dagokionez, gizarte bazterkeriaren aurkako planean modu espezifikoan jasoko du zigortuen gizarteratzea.

BOSGARRENA.

5.1. Barne Ministerioak, Espetxeko Lanaren eta Enplegurako Prestakuntzaren erakunde autonomoaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak prestatu beharko ditu bai gaur egungo espetxeratuak bai espetxe berriak eta haren gizarteratze zentroan egonen direnak behar adina lan okupazionala eta ordainduriko laneko programa izan ditzaten, Nafarroako espetxeratuen gizarteratzea errazteko, Nafarroako erakundeekin lankidetzan.

5.2. Halaber, nazioko gobernuak, gizarteratzeari dagokionez:

5.2.1. laneratzeko proiektu espezifiko bat eginen du, zeinak, lanbide heziketaz gain, prestakuntza ibilbideen barruan kokatzen diren jarduerak ere barnean hartu behar baititu. Prestakuntza ibilbideotan lanbide heziketako tailer okupazional teoriko-praktikoak, lan munduan sartzeko orientazioa eta gizarteratzeko laguntza-jarduerak sartu beharko lirake.

5.2.2. laneratzeko politiken benetako aplikazioa oztokatzen duten administrazio arazoak konponduko ditu.

SEIGARRENA. Barne Ministerioak aintzat hartu eta dokumentatu beharko ditu Nafarroako espetxeratuak izanen dituzten tratamendu-erlako

beharrizanak eta baldintzak, eraiki behar dituen espetxe eta gizarteratze zentro berriak direla eta.

Halaber, Nafarroako pertsona zigordunek beharrezko dituzten segurtasun eta laguntza arloko langileen plantilla-gehikuntzari ekin beharko dio.

Horretarako, beharrezkoa da langile teknikoek kopurua handitzea eta benetako diziplina anitzeko talde teknikoak osatzea, taldekideen askatasun teknikoa bermatuz, baina haien antolaketa eta mendekotasun funtzionala ahalbidetuz, funtzionamendu koordinatu eta harmoniatsua lortzeko.

ZAZPIGARRENA. Hezkuntza alorrean, espetxe arloko administrazioak eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak, nork bere eskumen-esparruan:

– Lanbide heziketa eta gizarte trebetasunen gaineko prestakuntza lehenetsiko dituzte.

– Lanbide heziketako jarduerak espetxetik kanpoko ikastaro normalizatu eta egitea sustatzeko Espetxeei buruzko Erregelamenduak eskaintzen duen modua aprobetxatuko dute.

– Epe ertain eta luzeko prestakuntza arautuko plan egonkor bat prestatuko dute, presoek prestakuntzaren aldetik dituzten premien eta itxaropenen azterketan oinarritutakoa. Planak prestakuntzaren jarraipena eta onarpen ofiziala bermatu beharko du, Enplegu Institutu Nazionalak eta Europako Gizarte Funtsak eskaintzen dituzten finantzaketa aukerak aprobetxatuz.

– Teknologia berriei esker presoek prestakuntza jasotzea errazteko dauden aukerak aprobetxatuko dituzte, proba moduan bada ere.

ZORTZIGARRENA. Espetxe berria eraikitzearekin batera, espetxeratuak gizarteratzeko plan bat prestatu behar da, kontuan harturik honako hauek izan beharko lirakekeela gizarteratzea helburu duen espetxe-eredu bat praktikara eramateko printzipioak: normalizazioa, pertsonalizazioa, mailaketa, tutorizazioaren ikuskera integral eta diziplina anitzekoa, gizarteratzeko ibilbide pertsonalean lagun egitea eta tratamendu programen eraginkortasuna nahiz zigordunaren konpromiso pertsonalak ebaluatu eta kontrolatzeko zorrotasuna.

BEDERATZIGARRENA. Barne Ministerioak, etorkizunean zerbitzuak eskualdatzearen ikuspegitik, aztertu eta ebaluatu behar du nahikoak eta eskuragarriak diren zerbitzu publikoen beharizana. Horretarako, bermatu beharko da zerbitzu publikoak gainezka ez egotea eta espetxe berria abiarazteko nahitaezkoa den kalitate-mailari eutsiko diotela. “Jadanik urriak” diren gaur egungo bali-

abideak egokitu eta errealitate berriei doitu behar-ko zaizkie. Hauexek lirajteke:

Aztura kentzeko programa ambulatorioak.

Paziente dualentzako tratamendu programak.

Komunitate terapeutikoak.

Buru-gaixotasunak dituztenentzako egonaldi ertain eta luzeko egoitza zentroak.

Gaixo terminalentzako gizarte eta osasun zen- troak.

Ospitaleko zaintza unitatea.

Gizarteratze eta laneratze taldeak.

Enplegu sozial babestua eta/edo gizarteratze enpresak.

Komunitatearen mesedetarako lanpostuak.

Bermatu behar da gizarte bazterkeriaren aur- kako plan berria espexeratuenganaino hedatu eta haiei aplikatzea.

HAMARGARRENA. Laguntza-sare sendo eta egonkorra finkatu beharko da.

Elkarteez eta gobernuz kanpoko erakundeek oso lankidetzaren eremu zabalean dihardute gizar- teratze prozesuan, eta betetzen duten eginkizuna ordeztu ezinezkoa da; hortaz, funtsezkoa da espe- txe berria talde horiei benetan irekia egotea.

HAMAİKAGARRENA. Barne Ministerioak kon- trol eta ebaluazioko sistema egoki bat zehaztu behar du.

Espetxeen bitartezko gizarteratzea kontrako kontzeptuen artean mugitzen da, eta horren zerga- tia da, hein handi batean, horrelako gizarteratze- aren eraginkortasuna neurtu ahal izateko neurri objektiborik ez ezagutzea. Gizarteratze politikak zorrozki ebaluatuko dira, eta erdietsitako aurrera- penaren norainokoa neurtzeko modua eman behar dute.

Estrategikoa da espexeratzearen ordeztu neu- rrien kontrol teknikoa bermatzea, gizarteratzearen bideragarritasunari buruzko kontzientzia soziala


sortuz; horretarako erabili behar dira baliabide kualifikatuak eta behar adinakoak, bai eta sistema informatikoak nahiz teknologia berriak ere.

HAMABIGARRENA. Komunikazio estrategia bat eduki behar da.

Bizi garen gizartean, segurtasunik ezaren sen- timendua handiagoa da egoera erreala baino; bel- durrak, erreprezio handiagorearen eskaerak eta espexeratze sistematikoak zeresana daukate kar- tzelen saturazioan. Sozialki desiragarriak ez diren pertsonengan hainbeste baliabide zergatik inberti- tzen diren ulertzen ez dutenen dinamika hori alda- tzeko, beharrezkoa da ikusaraztea sozialki erren- tagarria dela gizarteratzea helburu duen espexe-eredu batean inbertitzea. Zaintza-eredu- ak, bere horretan, ez dituela berrerortze-tasak murrizten. Espetxearen ordeztu neurriak eraginko- rragoak direla, modu iraunkorrean kontrolatzen direla, eta inongo zigor-politikak ezin dituela gizar- te-politikak ordeztu; bereziki, egoera sozial eta ekonomiko ahulenean dauden sektoreen gizar- teratzea ahalbidetzen duten gizar-te-politikak.

HAMAHIRUGARRENA. Koordinazio egonko- rreko baliabideak sortu behar dira, bai espexea- ren barrenean diharduten eragileentzat bai dauden gainerako baliabideetan nahiz etorkizunean sortu- ko direnetan dihardutenentzat ere. Horregatik, organo bat eratu behar da, eta bertan parte hartu behar dute zeresana duten Nafarroako Gobernu- ko departamentu guztiek, gaur egungo espexe-zerbi- tzuek (eskumenak eskualdatzen ez diren bitarte- an) eta presoekin lanean diharduten gizar-te- era- kunde guztiek.

HAMALAU GARRENA. Espetxearen arkitektu- ra-proiektuak, aurretik adierazitako baldintzak betetzeaz gain, gizarteratze-helbururako egokia izan beharko du tamainari dagokionez, intimitate- rako eskubidea bermatu beharko du gela indibidu- alen bitartez (salbuespenak izan ezik), eta modu- luetan egituratuta egon beharko du, kolektibo guztiak aintzat harturik; horrela, prebentiboak eta zigortuak modulu berezietan egonen dira, nor bere egoeraren arabera.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	